

# JOSE ANTONIO LOIDI BOTIKARI ETA IDAZLE

Jon Etxabe Goñi

*Jose Antonio Loidi Bizkarrondo, botikaria, euskaltzain urgazlea, zientzia gizona, literatur lehiaketetan epai-mahaikide, historia ikerlari, eta gure belaunaldiko askorentzat HAMABOST EGUN URGAINEN nobela poliziakoaren egile. Ikastolan, euskara irakaslearen aginduz irakurri nuen liburu hura. Nik bezala beste ikaskide askok. 1993an Euskadi Irratiko, DOANA JASOZ saiorako hiru ordu pasatxoko elkarrizketa egin nion. Bere garaian eman zen irratiz. Gaur OARSOko orrialdetara dakart hiru ordu luze haien entresaka hau. OARSO n bere ipuiak eta idatziak eman zituen argitara behin baino gehiagotan Jose Antonio Loidik.*

1916an Erreterian jaioa ,herriaren erdi erdian Loidi jauna.

Bai. 1916an Biteri kalea eta Santxo- Enea kaleen artean ixkina egiten duen etxe batean jaio nintzen. Orain Santxo- Enea 22.ean dagoen etxean.

## Senide asko?

Anaia bat izan nuen, eta bi arreba. Anaia eta arreba bat, oso egun gutxirekin hil ziren, bi bakarrak geratu ginen, arreba eta ni. Bixkiak gera. Gurasoak, ama , erreteriarra eta , aita, oriotarra. Aita Erreterira etorri eta nere amarekin ezkondu zen. Biak euskaldunak. Etxean euskaraz egiten genuen eta gurea euskal giroa zen.

## Baita herrian ere?

Garai hartan nik, umetan, kalean ere euskaraz egiten nuen nere lagunekin. Giroa euskalduna zen Erreterian.

## Umetako zein oroitzen dituzu?


Denetarik dauzkat, kaniketetan lagunekin nola ibiltzen nintzen, pelotan nola aritzen ginen kalean. Eskolan zazpi urtekin hasi nintzen Erreterian bertan, nere ama maistra zen, eta eskolara hasi nintzanerako banekien irakurtzen, idazten eta batuketak eta kenketak. Horiak danak banekizkien. Gero zazpi urtetan hasi nintzen eskolan eta orduan erderaz dena. Nere ama oso euskaltzalea zen baina erderaz eman behar zituen bere klasiak. Gero hamar urtetan batxillerra hasi nuen, Donostian marianistetan, eta gero gerratia hasi zen.

## Aitak zer lanbide zuen?

Aitak muelle fabrika zuen, berrogeita gehiago langile zituen berarekin. Han poliki zijoan , baina gero errepublika garaian, hasi ziren komiteak eta abar , eta itxi egin behar izan zuen. Gerra hasterako itxita zuen.

## Errepublikara garaiko Erreteriarako giroa nola gogoratzen duzu?

Jolas giroa neretzat. Hamasei urte nituen , baina gaurko hamabi urteko umeen giroa nuen. Jolastu eta besterik ez. Udaran baserri bat genuen Erreterian bertan, San Markos aldian, Zamalbideko elizaren ondoan eta hara joaten ginen udaran. Nik euskarari eutsi izan diot gehien bat Zamalbiden pasatako udara haiei esker. Han



hiruzpalau hilabete pasatzen genituen, eta han, jakina, denak euskaraz egiten zuten. Horri eskerrak eutsi diot nik euskararari.

## Famili giro euskaltzale hartan gogoratzen al duzu euskaraz egindako irakurketarik?

Ama euskaltzalea zen, aita gehiago oraindik, baina ez naiz gogoratzen, sekula irakurri izanaz ezer euskaraz orduan. Etxean izango ziran euskal liburuak, ez da dudarik, baina ez naiz gogoratzen.

## Nondik botikarako afizioa?

Nere asmoa arkitektura egitea zen. Nere aitak muelle fabrika zuen, eta bere gogoa zen nik arkitektura ikasketak egitea, eta nik fabrikarekin jarraitzea. "Arquitectura de interiores" edo ildo horretatik. Baina gaixotu egin nintzen eta galdu egin nituen bi edo hiru urte, eta gerratea hasi zenean oraindik gaxo nengoen, eta ez nintzen hasi oraindik karrera egiten. Gero, gerratea bukatu ondoren Bizkaian, Santanderen, hor barrena ibili ginen eta harrapatu gintuzten. Nere aitak Frantzira ihesi egin zuen eta eskerrak . Gurekin bizi zen Erreterian, apaiz bat: Gerbasio Albisu. Zumaira joan eta gero, Erreterira etorri zen berriz, eta geratu zen esanaz, "Apaiza naiz, neri frankotarrak zer egingo didate, ez didate ezer egingo?"; ba fusilatu egin zuten. Eta ikusi izan det liburutan zergatik fusilatu zuten; esaten zuten: "era el brazo derecho de un tal Loidi". Orduan guk: " el brazo derecho" fusilatu

badute berari zer egingo ote zioten. Frantziara joan zen Asturiasetik barkoan eta han pasa zituen hiru edo lau urte, gero etorri zen onera ixilka eta hemen gordeta ibili zen urtetan, eta horrela hil zen, gordeta.

Eusko Alderdi Jeltzalekoa zen, kontzejala eta oso sutua.

### **Zu ere ihesi ibili al zinen?**

Bai, ni ere ihesi ibili nintzen. Gudari bezala “ servicios auxiliaresen “ ibili nintzen Bizkaian. Laredo eta Santoñako boltsa hartan harrapatu gintuzten eta orduan han harrapatu eta gero, ni, gordeka, gordeka, Orioraino etorri nintzen. Aita oriotarra zen eta hor lengusuak eta abar genituen, familia. Iritxi bezain pronto esan zidaten, nora etorri zera. Bi bide nituen, Frantziara ihesi joan, eta hori zaila zen, edo entregatu. Eta entregatu egin nintzen Donostian. Gasteizen kanpo konzentrazioen batera eram ninduten, han egon nintzen denbora puska batean.

Gero, handik Burgosera eta gero libre geratu nintzen.. Gogoratzen naiz Gasteizko kanpo konzentrazioen esan zigutela, bakoitzak eska zitzala bere herrira informiak. Eskatu nituen. Orduan alkatea, karlista amorratu bat zen, nere aitaren aurkako amorratua, eta eundalako informe txarra bidali zuen. Jaso zuten noizbait informea eta juizio bat egin zidaten. Gogoan dut nola esaten zuten: “*es hijo de fulano, rojo separatista, su padre propagandista*”.. dena nere aitari buruz. Nitaz ez zuten ezer esaten. Nola esango zuten bada 16 urterekin gaxo egon nintzen, baserrian eta gero eskolan marianistetan, edo etxean, ez nintzan ezertan sartu. Ez nuuen ezertan sartzeko aukerarik izan. Gogoan dut hauteskundeak izan zirela hogeita hamaiketan edo hamabian, orduan ibili nintzen paperak kalean partitzen. Besterik ez nuuen egin. Nitaz ezin zuten ezer esan. Gogoratzen naiz, tribunala asarretu egin zela, “*oiga, hemos perdido informes suyos y no de su padre*”. Eta libre utzi ninduten. Ondoren, soldaduska egin nuuen, artillerian, Donostian.

### **Errepublikari garai hartan ba al zenuen literatura zale- tasunik?**

Ez, ez nuuen. Ordurako irakurriak nituen, Fernando Amezketarra eta Garoa, baina ez osorik. Ni euskalduna sentitzen nintzen, abertzalea ere bai, baina ez nuuen kulturarik euskaraz. Gero konturatu nintzen, handik urte batzuetara, nik euskaraz banekiela baina irakurtzen ez nekiela eta idazten batez. Ez nekien zu zera “z” edo “s”kin idatzi behar ote nuuen. Ezkondu eta gero hasi nintzen ikasten.


### **Noiz ekin zenion farmazia ikastetari?**

Esan bezala nik arkitekturarako gogoan nuuen eta nere aitak ere bai. Baina arkitekutra egitea, karrera oso zaila da; gainera, Madrilerara joan behar zen. Eta guri nola dena kendu ziguten, inkautatuak izan ginen, ez genuen

ezer. Ni jantzita nuuen arroparekin geratu nintzen eta bost duro poltsikoan nituela. Ezin nintzen Madrila joan ikastera. Orduan pentsatu nuuen, karrera errazago bat egitea eta etxean egiteko moduan. Nik karrera guztia, lehendabiziko urtea Madrilen egin nuuen, baina geroztikan etxean egin det dena; han Orion, etxean, maisurik gabe.

### **Eta nola moldatzen zinen?**

Programak eta liburuak erosten nituen. Nere arreba ordurako botikaria zen eta, bere liburuekin konpontzen nintzen; eta kostata moldatzen nintzen. Orion, soldaduska egin nuuean, konfinatu egin ninduten, ezin nuuen handik mugitu. Gogoratzen naiz, matrikula egiteko erretrato bat behar nuela, Orion ez zegoen erretratarik, eta Zarautza joan behar nuela. Mendiz joaten nintzen. Madrila azterketak egitera joateko ez nuuen erreztasunik



izan hasiera batean. Orion bagenuen “ Comandante “ edo “ Jefe de plaza” izena zuen bat, karabinero brigada bat, oso gaixtua, harekin ezin nuuen ezer egin; gainera beti atzetik nuuen. Askotan mezetan negoela, etortzen zen karabinero bat eta: “ *de parte del comandante que se presente usted inmediatamente*”. Meza utzi eta beregana joan behar izaten nuuen. Baina aldatu zuten eta beste bat etorri zen oso ona, eta hari esan nion: “ *oiga, mire, yo quiero ir a Madrid a examinarme, pero no puedo salir de aquí*”. Eta esan zidan: “ *vaya, usted y escribame dónde está alojado, para que yo sepa dónde anda*”, eta horrela joaten nintzen esaminatzera.

### **Esandako zailtasunekin karrera egin eta 1943an Iruna joan zinen eta han botika zabaldu zenuen 1942an karrera amaitu ostean. Nolako herria zen Irun?**

Oriokin zer ikusirik ez zuen. Gainera Oriotik Pasai Donibanera etorri ginen, ze nere arrebak botika jarri zuen bertan, eta hor bizi izan nintzen hiru urte, honera etorri arte. Irun oso ezberdina da. Errenterian umetan eta gaztetan giro euskalduna, Orion zer esanik ez, eta hemen, Irunen, Frankoren garaian bete betian geunden, desfilek, Flechas y Pelayos. Hemen ezin zen euskaraz ezer egin!. Orduan, euskal giroa zero!

### **Noiz konturatu zinen euskaraz idazten ez zenekiela?**

Lehenengo semea jaiotakoan, gaur bost ditut, 30 urterekin gutxi gora bera, jabetu nintzen euskaraz banekiela, baina idazten ez nekiela ezer. Orduan hasi nintzen ikasten. Eta ikasteko, bilatu nituen orduan ziren liburuak. Azkueren *Morfologia*, Altuberen *Erderismos*, Zabalaren *Gramatika* Lopez Mendizabalen *Gramatika*, eta lau horiekin hasi nintzen ikasten nere kabuz. Eta oraindik ere, ikasten ari naiz.

### **Eta idazten noiz hasi zinen?**

Ba handik urte batzuetara. 1955an edo 1956an. Ordurako literatura zaletasuna piztua zen nigan, liburuak irakurtzen nituen, eta abar.

### **Nobela irakurtzen al zenuen?**

Egia esan, naiz eta orain tarteka nobela lehiaketaren batean, epai mahaiko izatea egokitu izan zaidan, ez naiz ez gazteleraz ez euskaraz, nobela irakurzalea izan. Oso gutxi irakurri ditut. Gehiago gustatu izan zait biografia, historia, eta gero nere zientzia lanak, hidrologia, botanika eta gaia zientifikoekin zer ikusia zuten liburuak irakurtzea. Zientzia gaiak beti asko gustatu izan zaizkit. Hidrologia eta botanika gaietan liburutegi aberatsa daukat. . Zientzia denagustatzen zait, fisika, matematika, kimika, hidrologia, botanika, geometria, beti gustatu izan zaizkit, eta asko irakurri izan dut. Nobela, naiz eta nik nobela bat idatzi dudan, denbora galtzea iruditzen zait.

### **Nola bururatu zitzaion nobelak irakurtzea denbora galtzea zela uste zuen gizonari nobela bat idaztea?**

Ni euskaraz ikasten ari nintzen. Egun batean gogoratu zitzaidan praktikak egitea idazten eta pentsatu nuen itzulpen bat egitea. Hartu nuen Simenonen liburu bat. Maigret poliziaren hitorio bat, nobela poliziako bat. Hori itzultzen hasi nintzen. Ikusi nuen oso zaila zela neretzako, eta esan nuen, nere kabuz idazten hasiko naiz. Eta HAMABOST EGUNEN URGAINEN liburuaren eske ma bat egin nuen, eta gero bete egin nuen eskema hori. Gogoratzen naiz gainera, azken lerroak Oñatin idatzi nituela, han geunden udara batean. Bukatu nuen, eta Euskaltzaindiara aurkeztu nuen, eta aipamen berezia eman zidaten. Saria Jon Etxaidek irabazi zuen Joanak Joan eleberriarekin. Aipamen berezi horrek zaletasun gehiago eman zidan.

### **Idatzi duzu gehiago harrezkero?**

Ipuiak bai, nobelarik ez. Ipuiak, EGANen, Errenteriako OARSON azaldu dira, eta azaldu ez direnak ere bai. Gero idatzi izan det euskaraz, hidrologiaz zerbait, gutxi, historiaz, irungo historiaz. Hori izan da nere emana.

### **Zein metodo jarraitzen duzu idazteko?**

Esaten dute idazteko bi era daudela. Bat, aurretik eske ma bat egin eta hura bete, bestea da, idazten hasi, nora joango zeran jakin gabe eta segi ta segi. Ni berehala konturatu nintzen nobela poliziako bat egiteko derrigorez eskemaren metodoa jarraitu beharra zegoela. Jakin behar da hasieratik nor den hiltzailea e.a. Nik eskemaren sistema hartu nuen.

### **Ipuiak idaztea zailagoa omen da nobelak idaztea baino. Askotan entzun dugu hori. Zuk zer deritzozu?**

Bai, nik uste horrela dela neurri batean behintzat. Nik ipui bat idatzi nuen, EGANen atera zen, LANA zuen izenburua, eta ez du ez hasierarik eta ez bukaerarik. Hasten zera irakurtzen eta azkeneko orrialdean esaten du, pasa zaitez lehenengora eta bueltaka, bueltaka, ez du amaierararik.

### **Lanbidez botikaria. Zientzia gustoko eta gainera Botikari elkargo ofizialean kargoak ere izan dituzu.**

Gipuzkoako Botikarien Elkargoko presidentetarako hautagai eta bokala ere izan nintzen. Hitzaldiak eta mintegiak egin izan ditut zientzia kontuez hemen Irunen Aurrezki Kutxak antolatutako hitzaldi batzuetan, Donostiako Sanidadeak antolatutako hitzaldi batzuetan, ikastoletan ere ibili naiz hitzaldiak ematen, Errenterian ere izan nintzen.

### **Zuk botika zabaldu zenuen urtean iritxi zen penizilina gurera. Nola gogoratzen duzu garai hura?**

Nere aita 1945ean hil zen. Penizilina eduki izan bagenu ez zen hilko. Oso zaila zen hasieran lortzea. Komerzializatzen 1947an hasi ginen. Erruz kostatzen zen. Orain hamar durokin eskuratu ditekena, orduan ehun mila pezeta kostatzen zan.

### **Zuk *El sexo en la farmacia* liburu ere idatzi duzu. Zer kontatzen duzu liburu horretan?**

Orain dela bi urte idatzi nuen. Egun batean gure elkartetik, botikarien elkartetik, deitu zidaten esanaz, guri zaharrei, botikari zaharrei omenaldi bat egiteko asmoa zutela, eta ni konforme. Orduan hitzaldi bat eman behar zela egun horretan, eta nik egiteko hitzaldia. Zertaz?. Nahi duzunaz. Eta bueno, antolatu nuen hitzaldi hori. Eman nuen hitzaldia eta asko gustatu zen eta publikatzeko gogoia erakutsi zuen elkargoak. Luzatu nuen eta kalean zen liburu. Azaldu da liburu hori eta zer den?. Estudio bat egin nuen sexoaz, aurrena fisika, kimika, farmakologia, biologia, botanika eta zoologia alderdietatik. Horiek denak aztertzen ditut, erdaraz nola esaten dugun. Eta nola maskulinoa edo femeninoa ematen diogun funtsik gabe. Eta txirigota antzera eman nuen liburu.

### **Eta hidrologiarako afizioa nondik?**

Udal botikari ispektorea izendatu ninduten. Ondorioz, banituen nere eginbeharrak. Lehen eginbeharretakoa ura aztertzea zen. Gero janaridendak. Hortan oso zaletu nintzen eta hemengo uraz lan asko egin nuen eta saritua ere izan nintzen Madrilen. Hortaz franko idatzi det.

### **Literatura lehiaketetan epai mahai kide ere izan zera**

Euskaltzaindian bertan aritu izan naiz lan horretan, ze euskaltzain urgazle naiz 1955etik. Orduan lan franko egin nuen EUSKALTZAINDIAN. Eta epai-mahaiko izan nintzen. Eta beste lehiaketa askotan ere bai.

### **Errenterira bueltatzen zera**

Bai joaten naiz. Gainera OARSON idazten dut, ahal dudanean.

Eskerrak bada Jose Antonio Loidi eta beste bat arte. Horrela agurtu nuen irratsaio hartan gure botikari, zientzilaria eta idazlea. Lerro hauei amaiera berriz, bere hileta elizkizunean entzundako hitzekin eman nahi diot:

*Agur, egun haundirarte.*